

JOSE MANTEROLARI OMENALDIA

Donostia, 1984-IV-27

JOSE MANTEROLAREN OMENEZ

Donostian, 1984, Apirilak 27

Fr. Luis Villasante

Jaun-Andreak: (1)

Aurten betetzen dira ehun urte Jose Manterola jauna hil zela. Otsailaren 29an gertatu zen Manterolaren heriotzea. Gaztetasunaren lorean hil zen, 34 urte zituelarik. "Consummatus in brevi explevit tempora multa", dio Jakituraren liburuak, eta agian hemen ere hori bera esan daiteke.

Belaunaldi haren dardarak jaso eta ulertzen asmatu zuen Manterolak, joan den mendeko larogeigarren urteko belaunaldiarenak. Bihurgune gaitz batean aurkitzen zen orduan Euskal Herria; saminez betea, foruak galduak, odol hustua eta pobretua gerraren ondorioz. Baina zorigaitza norbere nortasunean barnatzeko bide ere gerta daiteke. Eta ordu onean, eta Manterola eta beste zenbaiti esker, hala gainditu zen bihurgune latz eta ilun hura.

Bi ekintza —kultur alorreko ekintzak, noski—, zein baino zein emankorragoak, zor dizkio Manterola jaunari Euskal Herriak. Lehenbizikoa: Euskal Kantutegiaren argitalpena. Kantutegi honetan Manterolak ez digu eman —izenburuari begiratuz lehen kolpean inork pentsa zezakeenez— herritik jasotako kanta edo bertso bilduma, ez. Euskal olerkari edo poeta landuen olerkiak, —hori bai, euskalki guztietatik hartuak—, sorta edo bilduma batean bildu eta eman zizkigun, zernahi ohar eta xehetasunekin aberastuak, gainera. Gaur orduan baino hobekiago ezagutzen dugu euskal literatura zaharra, baina garai hartarako urrats haundia izan zen hura.

Eta lehen ekintza hura bururatu bezain laster, bigarrena burutzera lotu zen Manterola jauna: *Euskal-Erria* aldizkaria sortzera. Euskal kultura jator bat nahi zuen lehiarazi, bultzatu, eta hortan zebiltzanen asmo eta lanak nolazpait batu. Hortarako sortu zuen Manterolak *Euskal-Erria* aldizkaria.

(1) Guztion gogoan dagoen gertaera negargarri bategatik —Enrique Casas jaunaren hilketa, alegia—, Manterolaren omenaldi hau atzeratu beharrean gertatu ginen, eta orduko partez gaur egiten dugu.

Esan izan da aldizkari horrek ekarri zizkion buruko min eta nekeek eraman zutela hilobira Manterola jauna muga baino lehen. Ez dakit. Baliteke. Zernahigisaz, Manterolaren obrak bizitze luzea izango du. Arzac eta Lopez Alen zuzendariei esker, 1918ra arte iraun zuen. Euskal kulturaren arrangura sentitzen zutenen agerkari, bultzatzaile eta gordailu izango da tarte horretan.

Manterola donostiar jatorra zen, Donostian jaioa eta Donostian hila. Euskaltzaindiari iduritu zaió mendeburu honen muga, ez Euskaltzaindiak eta ez Donostiak, ez dutela pasatzen utzi behar omenaldi xalo baina barrenkor bat berari eskaini gabe.

Señoras, Señores: (1)

José Manterola muere en San Sebastián el 29 de febrero de 1884. Ahora hace un siglo. También aquel año fue bisiesto. No tenía aún 35 años (le faltaban 23 días para cumplirlos, pues nació el 23 de marzo). "Consummatus in brevi explevit tempora multa" (Sap 4, 13), dice el libro de la Sabiduría y tal vez no esté del todo fuera de lugar la cita. Manterola supo percibir y captar las vibraciones del pueblo en aquella encrucijada difícil de los años 80. El país se hallaba dolorido por la pérdida de los fueros, empobrecido y desangrado por los efectos de la guerra civil. Pero la desgracia ayuda a veces a profundizar en las propias raíces y a tratar de conectar firmemente con ellas creando cultura propia. No fue el único ciertamente, pero tal vez es el más representativo de aquel momento crucial.

Dos grandes iniciativas culturales se le deben: el Cancionero Vasco y la revista *Euskal Erria*.

La primera de ellas, el Cancionero, en contra de lo que pudiera sugerir el título, no es precisamente una recopilación de poesía y canto popular, sino más bien una vasta colección de poesías de autores vascos más o menos cultos, de todos los dialectos, con traducción, notas al texto, noticias biográficas de los autores y a veces incluso melodías. Para aquella época supuso un gran esfuerzo de recopilación el reunir todo este material que se hallaba disperso y ofrecerlo al público con comentarios etc.

Una vez coronada esta obra, Manterola se lanzó a su segunda gran iniciativa: la creación de la revista *Euskal-Erria*, que tenía como designio fundacional el impulsar y aunar los esfuerzos por crear una cultura vasca seria y auténtica. Dicen que los trabajos ímprobos que se impuso le ocasionaron la temprana muerte, pero a pesar de ello su obra le sobrevivirá y aun alcanzará larga vida, pues la revista duró hasta 1918 gracias a los esfuerzos de Arzac y

(1) Por el triste suceso del asesinato del Sr. Casas nos hemos visto obligados a retrasar hasta hoy el homenaje a José Manterola.

López Alén. En la *Euskal-Erria* se dieron cita cuantos en la época sentían la inquietud de promover la cultura vasca.

Manterola era donostiarra de pura cepa. A Euskaltzaindia le ha parecido que ni ella ni Donostia podían dejar pasar la fecha de este centenario sin dedicarle un sencillo pero entrañable recuerdo.

En el frontispicio del primer número de la revista *Euskal-Erria* figura un artículo con el título "Nuestra misión", que seguramente es de él. En el mismo se pregunta Manterola si es mejor que todos los pueblos de España se uniformen perdiendo sus peculiaridades, o que, al contrario, las conserven. Opta por lo segundo, y en consecuencia añade:

"A recoger y transmitir los rasgos peculiares de la vida propia de estas siete provincias, que forman lo que podemos llamar la HEPTARQUIA EUSKARA, a dar a conocer su antiquísima lengua, su especial literatura, sus originales cantos y tradiciones, su historia, sus leyes y sus costumbres, reuniendo cuanto de más curioso se ha dicho de ellas, reproduciendo los trabajos de más interés, inéditos, agotados ya o poco conocidos de nuestros antiguos y más distinguidos escritores, y buscando el apoyo de cuantos prestan hoy culto y nombre a las letras bascongadas, para hacer así de nuestra revista un verdadero Album, un archivo manual de curiosidades del país, se dirigirán todos nuestros esfuerzos.

Ajenos por completo a toda tendencia política y de bandería, lejos de ese árido e intrincado campo sembrado de espinas y de zizaña, procuraremos llenar la misión que nos imponemos, con una voluntad firme y leal, encaminando todos nuestros trabajos a la felicidad de la Euskal-Erria, y a la unión franca y cordial de todos sus hijos.

Modestas, tan modestas son nuestras fuerzas cuanto es sincera y recta nuestra intención; procuraremos, no obstante, por todos los medios, hacernos dignos del favor del público, e ir mejorando paulatinamente nuestra Revista, en cuanto lo permita el apoyo que el país nos preste en la empresa" (*Euskal-Erria*, tomo 1.º, 2.º semestre del año 1880, p. 4).

Creo que a cien años de distancia estas palabras siguen siendo actuales.

JOSE MANTEROLA, EGILE ETA ERAGILE

Donostia, 1984-IV-27

Juan San Martin

Donostiar ospetsuen artean tokirik gorenetakoa merezi du Jose Mante-rolak, bereziki gure kulturgintzaren munduan eta euskara zuzpertzetz. Horre-
gatik, legezko zitzaion Euskaltzaindiari bere heriotzaren mendeurrenez ome-
nalditxo hau eskaintzea.

Aurtengo martxoaren 23an bete ziren ehun eta hogeitamabost urte Jose Manterola hiri hontan NARRIKA kaleko 1ean jaio zela eta San Bizenten bataia-
tu. Laburra izan zen beretzat mundu hontako bizitza, baina bere iragan labu-
rrean zenbat lan on egin zuen ez da hain erraz neurtzekoa. Denboraz izan
zuela diot bizitza laburra, ez ordea ekintzaz. Bere lana ikusirik argi dago den-
bora labur hura ongi aprobetxatu zuela eta edonori zaio luze; baina jakin
zazue 35 urte bete gabe hil zela, 1884ko otsailaren 29an, intelektu lana hain
buruz bete zuen gizona. Donostiako Santa Maria elizan egin ziren bere ani-
maren aldeko hiletak. Gazte joan zen, baina bere gogoa utzi zuen ondoren-
goen baitan, euskaldungoak iraun zezan. Eta gaur egungo euskaltzaleok ezin
esan berari ezer zor ez diogunik.

Manterola erromantiko giroan hasia eta hezia zen. Gaztetxotatik txerta-
turik zeraman gogo suharra bere herri hontako gauzen alde eta hortarako
jakintza sendoz jabetzen ahalegindu zen lehenik, ondorean frutu onak eskaini
ahal izateko asmoz. Bere aita, Gregorio Manterola, diputadu jenerala izan
zen, jakintzaz nahiko ondo hornitutako gizona. Jose berak Bergarako Semi-
nario hartan egin zituen batxiler ikasketak, Valladolid, Zaragoza eta Madrid-
en jarraitzeko Filosofia y Letras karrera bukatu arte. Haurtzarotikakoa bai
zuen literaturarako zaletasuna, eta estudioak amaitu baino lehen hasi zen
Madrid-eko *El Resumen* aldizkarian idazten, gero foruzaleen *La Paz*-en eta
liberalen *Aurrera* aldizkarietan gure herriaren defentsaz kolaboratzeko.
Lehen liburua ere gaztetxo zela burutu zuen: Gipuzkoako gida esku-liburu
bat argitaratuz 1871. urtean, artean hogetabi urte baizik ez zituela. Handik bi
urte barru *Diario de San Sebastián*-en zuzendaria zen. Laster lortuko zuen
Donostiako Biblioteka Munizipalaren zuzendaritza. Eta, horrez gainera, Ins-
tituto Nacional de Segunda Enseñanza-ko irakasle zen.

Erromantiko giroaren seme zela esan dugu. Oroi Iztueta eta Chahok ereindako hazia Bilintx eta Iparragirrekin loretua zela. Hortik aurrera, erromantikoen gailurrean aurkitzen direnetakoa dugu Jose Manterola eta bere ekintzarik handiena *Euskal-Erria* aldizkaria sortzean eta bere inguruan garai-ko jakitun eta idazle guziak biltzean datza. Bildu ere, mugaren bi alderdietako euskaltzale eta euskalariak bildu zituen. Horrela egin zen aldizkari hura bere izenaren jabe. Eta, gure kulturgintzan ari zirenek lehen aldiz izan zuten elkarturik lana egiteko aukera. Gero etorriko ziren ikerketaz eta politikaz ikuspegi berrituagoak eskainiko zituztenak, baina uka ezinezkoa zaigu berpizkundearen hasieretan zein garrantzitsua izan zen Manterolaren lana.

Egia esan, ziorik ez zitzaion faltatu bere gazte denboran. Hurbildik eza-gutu zuen karlisten bigarren gerratea, bertako lekukotasunik ere eman zuen kronika gisa *Diario de San Sebastián* hartan; baina egiazki bultzarazi zuena foruen galerazpena izan zen. Berez pizturik zekarren gogoari su eman bai zion 1876. urteko uztailaren 21ean Espainiako gobernuak gure foruak eragoztiko zituen legea eman zuenean. Egun hortan, bere zuzendaritzapean argitaratzen zuen *Diario*-an berri ematean, orla beltzez agertu zuen, azpian honako hau iragarritz: "Los fueros han muerto!" "¡Vivan los Fueros!". Hori zelata, Institutoko irakasletzatik bota zuten. Baina hortik hartu zuen euskal gaietan lehen baino sutuago aritzeko indarra. Jarrera horren lehen agerpena izan bai zen *Cancionero Basco* (1977) zeritzan bildumaren publikatzea.

Entzutea dugu, eta nonbait irakurri ere bai, Manterolak, erreakzionario gisa jokatu zuela geroztik. Holakorik gertatzen baita erreakzionario hitza oker erabili nahi dutenen artean. Baina, erreakzionario izateko ez dugu uste idea atzerakoien aldekoa zenik. Cadiz-ko Konstituzioa aurrerakoia zen oraindik feudalismopetik irten gabe zeuden herrientzat; baina, 1812an inglesen *Habeas corpus*-ean oinarriturik egin zen lege hura inork ez digu frogatu gure herri honentzat lege zaharreko foruak baino hobea zenik, Gure egunotan ere gertatzen zaigu holakorik. Baina, gauza bat da reazioa eta oso beste bat kontraekintza. Eta, kontraekintza zen Manterolaren bidea, inposatu nahi zutenen kontra eta bere herriaren alde. Horrela agertu zuen bere gizontasuna. Garai hartan Madrid-eko Congreso eta Senado osatzen zuten gehienek, alde-rantziz, gure lege zaharrei buruzko ez jakintasuna baizik ez zuten agertu. Eta, oraindik hemen gabilta orduko okerrak zuzendu ezinik.

Manterolak, bere kontraekintza hori alderik zuhurrenetik eraman zuen, bake bidez eta kulturgintzaz.

Fr. Michel eta M. J. Sallaberryk egin zituzten kanta bildumen jarraian etorri zen Manterolaren *Cancionero basco*, kanta zahar eta aintzinako euskal poeten lanak bilduz eta argitaratuz. Taxuz bete zuen lan hori, bere denborako poeta euskaldunenak ere gehituz. Bilintxen zenbait lan ere betiko galduko ziren berak jaso ez balitu. Aurkeztean, doinua zutenak pentagramaz jartzeaz gainera, batzutan egileen biografiak ipiniaz eta beti filologia oharrez aberastuak edo zenbait aburu erantsiz. Gaztelerazko itzulpena ere jartzen zien eta inoiz frantsezezkoa ere bai.

Garai hartan eta aldi berean, Lapurdiko Urruña eta Saran bazen eskualzale mugimentua; bestalde, Iruñeko Asociación Euskara de Navarra hasia zen lanean eta *Cancionero Basco* baino urte bete geroago sortu zuten *Revista Euskara* (1878-1883); Araban ordea, Fermin Herrán-en inguruan ari ziren; eta, Bilbo aldea ere lo ez zegoela aitortu behar da. Hala ere, euskararentzat Manterolaren ekintza zen probetxuzkoena. R. Becerro de Bengoak hara nola agertu zuen bere iritzia, 1880. urtean, *Irurac-bat* aldizkarian: “Don José Manterola, que con una entereza y un corazón de un gran éuskaro ha repartido, no sólo por los hogares del país, sino por todos los pueblos del mundo civilizado, do quier que hay bibliotecas y librerías, esos albums originales, que contienen las producciones de nuestros poetas, por él traducidas y comentadas con exquisito acierto y esmero y que llevan el sencillo título de *Cancionero Basco!* Las páginas de este libro se devoran, no se leen, por cuantos conocen la lengua de Larramendi y de Garibay, y a través de las estrofas, con la traducción a la vista, tratan de contemplar con creciente curiosidad, los que ignoran el vascuence, a los desconocidos y originales poetas de la apartada tierra. Para todos tiene, en efecto, misterioso y especial atractivo este libro”.

Hemen, euskaldunak harriturik gelditu ziren euskara idatzian hainbeste lan eder ikusteaz eta gainerakoak ere euskarazko literatura errespetu gehiagoz begiratzen hasi ziren. Lastima kanta haiek eskoletan ez erakastea; lastima, benetan, euskaldunoi gure errotikako literaturaren berri haurtzarotik ez emana. Orain, ehun urte igaro ondoren gailtza huts hori zuzendu nahian eta, zoritxarrez, ez borrokarik gabe.

Cancionero basco hura hiru urtez bukatzean beste lan handiago bati oratu zion, bere ekintza guzietatik emankorrena sortuz 1880. urtean: *Euskal-Erria* aldizkaria.

Manterola ohartzen zen kulturgintzaz zeregin handia bete beharrean ginela. Garai hartako idazlerik gehienak aldizkariaren inguruan bildu zituen, eta hura ere ez zen mugatzen Gipuzkoan; Euskal Herriaren zazpi aldeetakoek ez ezik euskalari arrotzek ere beren lanekin parte hartu zuten. Aldizkariaren orrialdeetan orotarik bildu zuen: arkeologia eta historia ikerketetatik, ohitura eta etnografia zein ahozko literatura bilketetatik sorketazko literaturgintzara arte. Gainera, kontu handia izan zuen politika arazoekin nahastu gabe ibiltzeaz, gehiengoaz baliatzearen. Horregatik, bertan idatzi zutenetakoak ditugu, besteak beste: Arzak, A Arana, K. Etxegarai, Otaegi, Arrese eta Beitia, Artolatarrak, Elizanburu, Iraola, S. Baroja, E. M. Azkue, ... euskaraz lanak argitaratu zituztenen artean, eta erdarazkoetan: A. Trueba, Iturralde y Suit, Delmas, P. Egaña, F. Baraibar, F. Sagarminaga, Bonaparte printzea, W. Webster, Julien Vinson, A. d'Abbadie, A. Champion eta abar.

Euskal-Erria aldizkarian gai interesgarri guziek izan zuten lekua, Wentworth Webster-ek aitortu zuenez, gure literaturaz, musikaz, kondairaz, herri jakintzaz eta abar zerbait jakin nahi zutenentzat ezin zela artxibategi hoberik ukan *Euskal-Erria* aldizkaria baino.

Bere lan hori aurrera eroan ahal izateko, egia esan, Antoine d'Abbadie eta Achille Fouquier-ek beren agiritegi eta liburutegiak erabiltzeko atea- kiz aukera guziak eskaini zizkioten. J. Vinson eta L. L. Bonaparte printzea- rengandik ere agiri eta aholku laguntzak jaso zituen. Egiazki, *RIEV* aldizka- ria eta Eusko Ikaskuntzaren sorrerazko aurrerapena izan zen *Euskal-Erria* aldizkaria, euskalari guziak bilduz gure herriari buruzko lanak erarik oroko- rrenez ematen erakutsi zigunez.

Inguruan langile laguntzaile onak izan bazituen ere, guziak elkartzeko gidaritza erakutsi zigan. Horregatik, bere heriotza geroztik ere frutu onak ematen jarraitu zuen hazia ondo eraginik utzi zuen landarak. Gidaritza ona- ren ondorioa zen. Iraolak ongi esan zuen Manterolagatik, “gure gidari eta argia”. Itxura batean, *Euskal-Erria* aldizkariaren jarraipenak ez zuen izan inolazko eragozpenik bere bidean ihardutzeko. Bere ordez, lankide izan zuen Antonio Arzak geldituko zen aldizkariaren arduradun, baina maisuaren hu- tsunea omenezko liburuaren sarreran agertu zuen: “Negarrak paperean arrastorik utziko balu, ez nuke tinta bearrik itz oek izkribatzeko...” esanaz hasi bai zuen eresi kutsudun hiletazko artikulua hura.

Bazen beste ekintza bat ere *Euskal-Erria* aldizkariaren babespean sor- tzaile izan zena. Sortzaile ez ezik antolakizunak ere beren lepotik eraman zituen: Euskarazko itz-jostaldien Batzarrea (Consistorio de los Juegos Flo- rales) zeritzana, 1882an programatua. Egia esan, d'Abbadiek sortu zituen Euskal Jaiak (Fiestas euskaras) antzerako zerbeit zen, behar bada ez hain garrantzitsua; baina gure gizon burutsua bere eskuz behar bezala gidatu bai- no lehen hil zen. Honen egitekoa, literatur, musika eta pintura lehiaketetarako deiak.

Idea handiak zituen eta proiektu bat bestearen ondorean emanaz joan zen bere bizitza labur hortan. Herioa hurbil zetorkionik jakin gabe eta presa- ka.

Baina, otoi, eragilez gainera egile ere bazen, aldizkariaren zenbaki guzietan anitz idatzi zuenez. Frutu onik eskaini zigan arlo hortan ere. Bere lan horietatik ezer goraiatzekotan “Apuntes necrológicos” eta “Autógrafo y noticias”, “Curiosidades bascongadas” eta “Efemérides basco-nabarras” sai- lak dira gogoangarriak, Euskal Herriak eman dituen era askotariko pertsona- ien berriak eman bai zituen. Euskal idazleetarik toki berezia izan zuten Axu- lar, Mendiburu, Larramendi, Etxeberri Sarakoa, Iparragirre, Pascual Iturriaga eta beste zenbaitek. Horien bizitza eta lanei buruzko berriez gainera ikerke- tarik ere eskaini zigan. Adibidez, bera izan zen Sor Luisa-ren *Gabon sariak* lehen lehenik Muniberena zen ustea zabaldu zuena.

Euskara idatzian ere ez zen labur gelditu, artikulua eta saio asko idatzi zituenez, beste zenbait itzulpenez gainera, horien artean Teocrito eta Ana- creonte griego klasikoetatik. Euskaraz eta gazteleraz, XIX. mendean lehen partetik Donostian egin izan ziren ihauterieri buruz ere idatzi zuen.

Bestalde, sorketazko literatura lanak ere egin zituen eta aipatzekoak dira poema hauek: Itanasia, Amalauduna, Aita Mendiburu, Somaketa, Munduko esamesak, Kantauria eta epika gisa, latinez titulaturaz idatzi zuen poema luzea, *Post tenebras spero lucem*.

Manterolaren beste alderdi bat, gure artean ez hain ezaguna, hizlari polemistarena da; bereziki foruen eta euskararen alde nabarmendu zen Donostiako Ateneoan. Garai hartan Joakin Jamar omen zen Ateneo hartatik igaro zen hizlari bizi, argi eta polemikoena; arrazoi bidez apenez inork menderatzen zuen. Jose Goikoa buru zela mahai-inguru bat eratu omen zuten, euskara bai ala ez, eztabaidatzeko. Mahaikide ziren Jamar, Serafin Baroja, Egoskozabal eta gure Manterola. Publikoaren aurrean haizetu zuen Jamar jaunak: "¿Hasta qué punto es cierto que encierra un gran interés la conservación de la lengua euskara? ¿Hay realmente un interés en conservarla y procede que se hagan serios esfuerzos para ese fin?". Hitzetik hortzerako ihardespak izan omen ziren Jose Manterolarenak, euskararen garrantzia agertuz eta bere berbikundearen premia azalduz. Bere argudioak hain arrazoizkoak eta hain zorrotz esanak omen ziren, Ateneoko entzuleen aldetik inoiz ez omen zen jaso halako txalorik.

Gertakari horiek, gaurko gaiak balira bezala agertzen zaizkigu. Euskara, gure herriaren arima iduritzen zitzaion Manterolari: Hizkuntzaren heriotza eta Euskal Herriarena batean ikusten zuen. Gaur egun ere, askorentzat hala da. Gaurko zoritxarra ordea, idea hori ontzat hartzen dutenek ere, gehiengoan gazteleraz mintzo direla. Ez da erraz igartzekoa euskarak zein duen bere etsairik handiena, bere kontra dagoena ala asmoz alde egonarren ez ikasi eta ez mintza, besteren arazoa balitz bezala jokatzeko duena. Baina, gaur hemen Manterolaren jokabidea interesatzen zaigu.

Manterolaren ikuspegia oso zabala izan zen, ideak argi eta garbi zituen, bere denborako beste euskaltzale batzuk bertsolaria mesprezuki erabiltzen zuten garaian, berak bertsolari saioak antolatzeari eman zion, sariak jarri ere bai, eta beretan epaimahaiko izan. Kultur maila guziak probetxugarritzat zituen, zein *élite*arena hala populuarena, eta euskal literaturak guziak behar zituen.

Bere heriotza uste gabekoa izan zen eta laster zabaldu zen berri beltza Euskal Herriaren zazpi alderdietara. Eragin handia izan zuen. Horren oihartzuna hara nola adieraziz aditzera eman zuen Klaudio Otaegik: "Lapurditikan Ebrorano, ail tristero dago guzia". Orduko euskaltzale eta abertzaleen bihotzak ilundu ziren, eta bere publikazioetan lankide zirenek galera haren sentipenez, bat-bateko bilduma eskaini zioten. Bilduma hartan bada eresi hunkigarririk, baita ere bere jokabide zintzoa zorrotz agertzen duenik. Horietako adibide bat Arturo Campion Euskaltzaindiaren sortzaile eta Manterola hil zen urte berean *Gramatica bascongada* publikatu zuenarena dugu. Gaur oraindik ez datorkio hain gaizki eta merezi du hemen irakurtzea; hara zer zioen:

“La manifestación más enérgica de la personalidad de un pueblo, el testimonio más elocuente de la supervivencia de una raza, el instrumento más poderoso de las reivindicaciones nacionales, es el lenguaje: un idioma es una frontera.

Al convertir José Manterola todos los rasgos de su espléndida inteligencia hacia la lengua euskara, fue un gran patriota.

Su nombre fue limpio espejo de los buenos que defienden al país basconavarro y anatema de los villanos que sirven o ayudan a sus perseguidores, o transigen con sus enemigos. ¡Bendito sea!”.

Gainerakoan, omenezko liburu hartan, laudoriorik ez da falta.

1902. urtean, Donostiako kale bati bere izena jarri zitzaion, Baina, euskaltzaleok ahantzirik ez ote dugu eduki?

Berak utzi zigun hilburukorik onena, euskal literaturaren zabalkundez eta indarberritzez *Cancionero basco-z* gainera, *Euskal-Erria* aldizkaria eta honen jarraipena izan ziren. Ordurarte, gure intelektu jendea oso sakabanaturik ibili zen eta bere eraginezko lanetatik datorkigu bilduz eta elkarlanean aritzea, ekintza haietarako kideak ondo hezituak jarri zituenez. Aldizkariaren zuzendaritzan honako hauek izan ziren, elkarren jarraian: A. Arzak, F. López Alén eta T. Altzaga. Azkenik, bizitza labur hartan aski egin ez balu bezala, bere paper argitaratu gabeen artean aurkitu ziren, besteak beste, 1877an osatu zuen bilduma interesgarri bat, “Refranes y proverbios”, 1911.ean *Euskalerraren Alde* aldizkariak argitaratuko zuena. Nonbait, El Cid Campeador bakarrik ez zen hil eta gero ere batallak irabazi zituen. Kulturazko batalletan behintzat, kontuan hartzekoa dugu Manterolaren lana. Bere heriotza min sendagaitza izan bazen ere, RIEV, Eusko Ikaskuntza, eta beste zenbait ekintzaren bide idekitzaile izan zen eta neurri batean Euskaltzaindiak ere bere parteaz zor dio.

MANTEROLAREN “CANCIONERO BASCO”

Donostia, 1984-IV-27

Jose Antonio Arana Martija

Juan San Martinek eman digun biografian ikusi dugunez, gazte, 34 urtekin, hil zen Donostian Jose Manterola Beldarrain. Hil zenean oso ezaguna zen eta baieztatzeko ez dago besterik liburu hau ikustea baizik: *Donostian. Manterolari 1884*, omenaldi gisa argitaratua, orduko euskalzaleen izenekin hornitua. Baina *Cancionero Basco* delako bilduma argitaratzen hasi zenean ez zen hain ezaguna, 1877.eko Azaroan ez zuen oraindik gauza askorik argitaratu eman eta.

Sei urte lehenago *Guía manual de Guipuzcoa*, liburu mardul bat, eta zabalkunde handia izan zuena argitara emanda zeukan. Eta Donostian eta inguruan Manterolaren izena zabalarazi zuen 22 urtekin prestatu zuen lehen lan honek. Baina izatez Cancioneroa izan zen Manterolari entzute handia eman zion lana. San Martinek aipatu ditu zehatz eta mehatz Manterolaren lanak eta ez noa berriz zerrendekin zuek aspertzera. Baina bere biografiaren puntu batzu ikutu beharrean aurkitzen naiz, hemen esanda dagoenez, Bibliotekaria ere izan baizen eta, ene ustez, neri dagokit xehetasuntxo hau argitzea. Letren irakasle laguntzailea izan zen Donostiako Institutuan: Profesor Auxiliari de Letras izan zela diote orduko Institutuaren Memoriak, 1879tik aurrerakoak, behintzat. Beraz, Karlisten Gudua bukatuta erasoak sufritu izan bazituen, urte horretan berriz onartua izan zela adierazten digute Institutuko Memoriek. Eta Parisetik Juan Carlos Guerrari egindako gutun batetan, 1880.ean, hala aipatzen dio Manterola adiskideak. Eta Institutuko Irakasle laguntzaile izateak badauka zerikusirik Manterolaren beste lanpostu batekin: Donostiako Udal Bibliotekaren zuzendaritzarekin, noski. Institutuko Irakasle laguntzaileen betebeharra, orduko araudietan agertzen denez, Bibliotekariaren laguntzaile izatea ere zen. Hor dugu ba Manterola Institutuko Bibliotekaren liburuzain orde egina eta hemen egindako lanak zabalduko zion seguraski Udal Bibliotekako bidea. Erakunde honen lehen urratsak Sebastian Miñanok eman zituen, *Diccionario Geográfico de España y Portugal* delakoaren egileak, 1840 inguruan. Eta Biblioteka honen lehen zuzendaria Jose Lopez Aizpuru hil zenean, Manterolari eman zioten zuzendaritzako ardura, 1884an hil arte ondo baino hobeto bete zuena. Hau zen nere oraingo lanpostutik esan behar nuena.

Baina Manterolaren *Cancionero Basco* komentatzea da nere gaia eta harira noa zuzen. Gaztetatik hasi zen Manterola euskal kultur alorretan mugitzen eta euskarak ere kezkatzen zuen gure donostiar gaztea. Euskararen alde hiru bilduma osatzen hasi zen, lehena, *Refranes y Proverbios vascongados. Reunidos en colección y ordenados por José Manterola*. Argitaratu gabe utzi zuen lan hau eta gero, 1911.enean, “Euskalerriaren Alde” aldizkariak argitara eman zuen. Bigarren bilduma, euskal deiturena, 1881.ean argitaratu zuen Manterola berak: *Colección alfabética de Apellidos vascongados*. Francisco José Irigoyenek Mexikon 1809an kaleratua hartu zuen Manterolak oinarritzat, Astarloa, Hervas eta beste etimologisten oharrekin gehituz eta berak egindako eranskin eta argibide batzuekin apainduz. Hirugarren bilduma gaur aztertu behar dugun *Cancionero Basco* da. 28 urte zituelarik plaza-ratu zuen Manterolak bilduma honen lehen alea, 1877.eko Azaroaren lehen egunetan.

Euskararen egoera larria askotan salatu zuen Manterolak Donostiako Ateneoan izan ziren mahai inguruetan. Orduan ere egoera sozio-linguistikoa ez zen gure hizkuntzarentzat lagungarria, 1857.eko Hezkuntza Publikoaren Legeak euskara programetatik baztertzen baizuen gaztelaniari lehentasuna emanaz eta bide zabala irikiz. Euskaldunak, katalanak eta galiziatarrak lege horren aurka batzeko eta hizkuntza minoritarioak bultzatzeko proiektu bat asmatu zuen Manterolak. Horregatik burutu zitzaion literaturaren bilduma bat osatzea eta asmo hori betetzeko prestatu zuen 1200 orrialdedun antologia bat, hiru urtetan zehar, 1877.etik 1880 arte hiru liburutan kaleratua.

Cancionero Basco delakoaren hitzaurrea Donostian izenpetzen duenean, hil askotan prestatutako lana dela aitortzen du Manterolak. Prestakuntza honen berri bazekien Angel Allende Salazar jaunak eta hala agertzen digu *Biblioteca del Bascófilo* liburuaren hitzaurrean. 1877an lortu zuen gernikarrak lan honekin Madrideko Biblioteca Nacionalaren saria, nahiz eta hamar urte geroago argitara eman, egilea hil ondoren. Beraz, Manterolak bilduma argitara eman orduko, lanaren berri emanda zeukan Allende Salazarrrek. “En estos momentos —diosku hitzaurrean— un distinguido literato publicará en San Sebastián un cancionero bascongado en que se contengan las mejores poesías de nuestros escritores”. Baina Allende Salazar-en bibliografian ez da Manterolaren Cancioneroari dagokien fitxa bibliografikoa agertzen, bibliografoak ez zeukalako orduan liburua eskuetan. Hurrengo euskal bibliografietan bai agertzen da lan honen fitxa. 1891an argitaratzen du Sorarrainek bere Katalogoa eta aipamena egin ondoren, Antonio de Truebak “Noticiero Bilbaino”n (1878-9-18) esandakoa dakar: “No debía haber en la tierra vasco-navarra un pueblo, ni una corporación que no depositara y conservara religiosamente en su archivo un ejemplar de este libro”. Julien Vinsonek ere aipatzen du Cancioneroa bere Bibliografian eta hemen fitxa hutsa baik ez badu ematen, lehenago zeukan idatzia Manterolak prestatutako lanaren goramena, “Revue de Linguistique et de Philologie comparée” aldizkarian, 1878an. Arturo Campionek ere, urte berean, bilduma honen laudorioa egin

zuen Iruñeko "Euskara" aldizkarian (Ikus 1878, 3. zenbakia, 54-63 orrialdeak). Londoneko "The Academy" aldizkariak ere hitz beroekin txalotu zuen *Cancionero Basco* delakoaren agerkundea.

Politikoki hil zorian aurkitu zen gure Euskal Herria 1876an eta politika bidetik ez bazuten orduan zereginik ikusten, kultur arloan hasi zen gure berpizkundea. Eta Jose Manterola izan zela honetan aitzindaria esan dezakegu. Berak sortutako *Euskal Erria* izan zen lehen kultur aldizkaria eta *Cancionero Basco* lehen poesiaren antologia. Azter dezagun bada lehena izatetik gainera, ona eta oinarria izan zen bilduma.

Izenburuak hala dio: *Cancionero Basco. Poesías en lengua euskara reunidas en colección, ordenadas en series, y acompañadas de traducciones castellanas, juicios críticos, noticias biográficas de los diversos autores, y observaciones filológicas y gramaticales*. Hasierako plangintzan eskainitakoa bete zuenez, ez da gutxi Manterolak ematen diguna. "Cancionero" hitza erabili zuen Manterolak lanaren atarian eta hitz honen erdal esangurak ematen digu bildumaren mamia: Colección de poesías recogidas de varios autores. Beraz olerkien bilduma bat dugu, edo "colección de canciones", "canción" = composición en verso que se canta o compone a propósito para que se pueda poner en música" delarik. Baina funtsez Manterolaren bilduma literaturaren antologia da. Musika ere ematen digu Manterolak, baina ez dio honi garrantzi handirik ematen, 12 doinu baizik ez baitzikigu aurkezten. Hitzaurrean dioenez, "aquellas poesías líricas más populares serán acompañadas del canto correspondiente, a cuyo efecto se agregarán al fin de cada tomo, y por vía de apéndice, las hojas de música que sean necesarias". Eta egia esan, argitara emandako doinuak, gehienak, orduan eta orain oso ezagunak dira.

Ordurarte argitaratutako hiru bilduma erabili zituen Manterolak esku artean: Francisque Michel-en *Le Pays Basque...*, lehena baina, berak dioskuzenez, Iparraldeko olerkiak dira bilduma honetan azaltzen direnak eta Hegoaldekoak nahi zituen berak adierazi. Berdin gertatzen zaio Salaberry-ren *Chants Populaires du Pays Basque* delakoarekin. Iturri honetatik zerbait gehiago hartzen du, eta hemen ikus dezakegu Manterolaren asmoa bilduma literario bat egitea zela, testuak baizik ez baititu Salaberryrengandik hartzen, salbuespen bat edo besterekin. Azkenean, Santestebanen *Colección de Aires Vascongados* ere aipatzen du iturritzat, baina ez du aintzakotzat hartzen, "utilísima para la historia de la música popular vascongada (pero que) carece por completo de importancia bajo el aspecto literario" iruditzen zaiolako. Hemen ere agertzen da literaturaren lehentasuna. Zurrusta meheko bildumak ziren ba eskuarteko bildumak, eta biltzeari ekin behar zion berea osatzeko. Eta hori da benetan lanaren balioa, hainbat lan berri argitaratzea. Hau da lanaren egitura:

LEHEN SAILA (1877-1878)

- I. Tomoa. 1877, Azaroa. *Amodiozko Kantak*. 99 orrialde.
- I.1. *Iparragirre: Nere maitiarentzat* (G).
- I.2. *Oihenart: Argia darizanari* (Z).
- I.3. *Iztueta: Kontzeziri* (G).
- I.4. *Gibert: Andregeia* (L).
- I.5. *Bilintx: Juramentuba* (G).
- I.6. *Belsunzeko Kondea: Gabazko Kantua* (BN).
- Eranskina: Iparragirre, Iztueta eta Giberten doinuak.
- II. Tomoa. 1877, Abendua. *Bestelako Kantak*. 99 orrialde.
- II.1. *Etxepare: Heuskara, jalgi adi kanpora*. (BN).
- II.2. *Serafin Baroja: Ai hau dolorea!* (G).
- II.3. *Jose Joakin Ormaetxea: Saphok Phaoni, Oda*. (G).
- II.4. *Txori erresinula*.
- II.5. *Iparragirre: Nere etorrera lur maitera* (G).
- II.6. *Franzisko Manuel Egaña: Agur* (G).
- II.7. Beste olerki batzu.
- Eranskina: Ai hau dolorea eta Txori erresinularen doinuak.
- III. Tomoa. 1878, Urtarrila. *Olerki alai eta satirikoak*. 97 orrialde.
- III.1. *Bilintx: Zaldi baten bizitza* (G).
- III.2. *Edalen elheak* (BN).
- III.3. *Larralde: Mutil zaharra* (L).
- III.4. *Meager: Ardoari jarritako hitz neurtuak* (G).
- III.5. *Ezkontzako konsultazionea* (BN).
- III.6. *Bilintx: Ja-jai!* (G).
- III.7. *Ramon Artola: Erariaren bertuteak* (G).
- Eranskina: Meager eta Zaldi baten bizitza-ren doinuak.
- IV. Tomoa. 1878, Otsaila. *Alegiak*. 97 + XVI + 8 orrialde.
- IV.1. *Bonaparte: Ereilearen Parabola* (Euskalkietan).
- IV.2. *Esne saltzailea* (G, L, B, Z).

IV.3. *Otsoa eta arkumea* (G, L, Z).

IV.4. *Azeria eta akerra* (G, Z).

IV.5. *Belea eta azeria* (G, L, Z).

IV.6. *Astoa eta txerria* (G, B).

Eranskina: *Hiztegia eta Aurkibidea*.

BIGARREN SAILA (1878)

I. Tomoa. 1878, Apirila. *Bilintxen argitaragabeko bertsoak*. 117 or.

I.1. *Gaztetan jarriak dama bati*.

I.2. *Neskatxa bati mutil batek jarriak*.

I.3. *Izazu nitzaz kupira*.

I.4. *Villegas-en "Al céfiro" antzekoak*.

I.5. *Doloresi*.

I.6. *Bertsolarien gudua*.

I.7. *Hitz-lauzko lanak*.

II. Tomoa. 1878, Maiatza. *Bestelako kantak*. 91 orrialde.

II.1. *Iparragirre: Viva euskera* (G).

II.2. *Salaberri: Zolferinoko ixua* (BN).

II.3. *Elizanburu: Nere etxea, edo Laboraria* (L).

II.4. *Bilintx: Kontzezirentzat* (G).

II.5. *Txorinua kaiolan* (Z).

II.6. *E.M. Azkue: Antxinarik ona!* (B).

II.7. *Eperraren kanta* (G).

II.8. *Bat-batekoa* (G).

II.9. *Kantak* (G).

II.10. *Koplatxu bat* (B).

Eranskina: *Iparragirre, Bilintx eta Txorinua kaiolan-ren doinuak*.

III. Tomoa. 1878 (Ekaina). *Kanta Historikoak*. 93 orrialde.

III.1. *Leloren Kantua*.

III.2. *Altabiskarko kantua*.

III.3. *Beotibarko kantua.*

III.4. *Iparragirre: Gernikako Arbola (G).*

IV. Tomoa, 1878, Uztaila. *Denetariakoak.* 107 orrialde.

IV.1. *Etxepare: Hamar manamenduiak (BN).*

IV.2. *Etxeberri: Iainkoaren manamenduiak (L).*

IV.3. *Pouvreau: Iainkoaren manamenduiak (L).*

IV.4. *E.M. Azkue: Dies irae, dies illa, euskarazko bertsoan (B).*

IV.5. *Munduko gauzen funts-gabetasuna (L).*

IV.6. *Etxeberri: Noelak (L).*

IV.7. *Jose Bizente Etxegarai: Eguberri kantak (G).*

IV.8. *E.M. Azkue: Gaboneko kantak (B).*

IV.9. *Jose Antonio Uriarte: Neskatila esne saltzailia (B).*

IV.10. *Josefa Bizenta Mogel: Otsoa ta bildotsa (B).*

IV.11. *Josefa Bizenta Mogel: Belea ta aizeria (B).*

IV.12. *Antonio de Trueba: Hiru lan Manterolak itzuliak (G).*

HIRUGARREN SAILA (1880)

Tomo bakarra. 467 orrialde.

Hitzaurrea.

Algunas observaciones sobre ortografía euskara.

Artzaina ta bere gaznak (L).

Arana, Aita Jose Inazio (G)

1. *Hamarrekoak.*

2. *Zortziko haundi bat.*

3. *Lope zanaren zortzikoa hamarrekoan.*

4. *Juan Sebastian Elkano getariatar jaunari, mundua jirabiratzan.*

5. *Gurutzearen garaitupena euskaldunakin Nabas-en.*

Arrese-Beitia, Felipe (B)

1. *Ama euskeriari azken agurrak.*

Artola, Ramon (G)

1. *Egusentia.*
2. *Ilunabarra.*

Arzak Alberdi, Antonio (G)

1. *Azken agurrak gure etsiagoari.*

Azkue, Eusebio Maria (B)

1. *Apolo eta musak.*
2. *Saguak eta katua.*
3. *Astoak arrantsia.*
4. *Emakumian sendotasuna.*
5. *Gizonkeria eta gizontasuna.*
6. *Ziri bertsoak.*
7. *Ave maris Stella.*

Baroja, Serafin (G)

1. *Ziri-bertsoak.*
2. *Arrats izugarria.*

Berjes de Sara, Joannes (L)

1. *Artzaingoa.*

Bizkarrondo, Indalezio "Bilintx" (G)

1. *Loriak.*
2. *Beti zutaz pentsatzen.*

Dibarrart, Pierre (L)

1. *Txinaurria eta txoria.*

Elizanburu, Jean Baptiste (L)

1. *Maria.*
2. *Aingeru bati.*

Guilbeau, Martin (L)

1. *Laborariaren doatsutasuna.*

Iturriaga, Agustin (G)

1. *Alegi argitaragabeak.*
2. *Artzai koplak (Bergiliren I. Egloga).*
3. *Koplarjen tema Palemon Juez dutela (Bergiliren III. Egloga).*

Mendibil, M.P. (L)

1. *Artzain dohatsua.*

Otaegi, Klaudio (G)

1. *Silbiaren heriotzan. (Arolasen itzulpena).*
2. *Jesukristoren igoeran edo igandean (Fray Luis de Leon, itzulpena).*
3. *Kanpoko bizitza (Fray Luis de Leon, itzulpena).*
4. *Itxia egondu zan presondegian (Fray Luis de Leon, itzulpena).*

Sor Juana Ines de la Cruz

1. *Arantzazuko Amabirginari Kantua.*

Sueskun, Migel (G)

1. *Lope zanaren sortzikoa.*

Uriarte, Jose Antonio (B)

1. *Alegi argitaragabeak.*

Eranskinak

1. Tomo honetan agertzen diren hitz guztien Hiztegia, euskara-gaztelania-frantsesa.
2. Elizanbururen kanta bien doinuak.
3. Aurkibideak gaika, egileka eta euskalkika.

Parkatuko didagute hain zehazki Manterolak argitaratu zituen lanak zerrendatzea. Baina beharrezkoa zela uste izan dut bi arrazoi gatik: bata, hiru sail edo liburuen mamia ezaugarazteko eta donostiar honek burutu zuen lanak zeukan garrantzia azaltzeko; eta bestea, eta hau da neretzat arrazoirik aipagarriena, inork ez duela, nik dakidanik behintzat, lan hau behar den bezala orraztu eta eskuartean erabilten ditugun bibliografietan ez direla egileen lanak banan banan aipatzen. Jon Bilbaoren Euskal Bibliografian, esaterako, ez dira aipatzen, egileka, Manterolak argitaratu zituen lanak. Beraz, gure literatura aztertzeke beharrezkoa da hemen emandako zerrenda, inon agertzen ez diren aipamen bibliografikoak edukitzeko.

Adibide batzu emango ditut. Ezpeletako Edmond Giberten *Andregaia* ez du Jon Bilbaok aipatzen idazle honen lanen artean. Eta doinu ta guzti dakar Manterolak. “Intxauspeko alaba” kantatzeko erabiltzen den doinua da Gibertena, Sebero Altubek ederki harmonizatu zuena. Jose Joakin Ormaetxea ezezaguna da gure idazleen artean eta bere *Saphok Phaoni*, *Oda* ez da inon agertzen. Lersundi Generalaren osaba omen zen Ormaetxea jauna. *Edalen elheak* ere ez da inon argitaratzen ez bibliografietan aipatzen. Larralderen *Mutil zaharra* aipatzen du Jon Bilbaok, baina 1864.eko argitalpena, Sarako Euskal Jaietan egindakoa, oso arraroa oker ez banago. Iruñeko “Euskara” aldizkarian ere argitaratu zela dio Jon Bilbaok; baina ez dio lehenago eman zuela ezagutzera Manterolak. Erramon Artolaren *Erariaren bertuteak* lana ez du aipatzen Jon Bilbaok. Bonaparte Printzearen *Erailearen Parabola* Londonen argitaratu zen 1878.eko lehen egunetan eta argitalpen hau aipatzen du Jon Bilbaok. Baina ez du esaten —eta Bonaparteren bibliografia osatzeko beharrezkoa dela, nik uste— 1878an, Otsaileko alean, argitaratu zuela Manterolak Londoneko argitalpen originala oraindik bero zegoelarik.

Eta nork daki Iturriaga, Goietxe, Iza, Artxu, Zalduby (Hergarayen ize-nordearekin), Baroja, Juan Antonio eta Bizenta Mogel, eta Jose Antonio Uriartek idatzitako alegien itzulpenak argitaratu zituela Manterolak? Etabar, etabar. Sarritan lehen argitalpena, eta batzuetan orain arte daukagun bakarra eman zigun Manterolak. Eta hau jakin behar den gauza da. Horra hor nere kehetasunen arrazoa.

1877.eko Azarotik 1878.eko Uztailerarte eten gabe lanean jarraitu zuen Manterolak lehen bi sailak edo liburuak argitaratzeko. Juan Osés izan zen lehen bi tomo hauen inprimatzailea, *Diario de San Sebastian* egunkaria inprimatzen zuen berbera. Bi lehen liburu hauetako musika grabauak Enbeltran kalean zegoen Arrietaren Litografiak egin zizkion. Hirugarren liburua 1880an argitaratu zen, bigarrena bukatu eta urte terdi geroago, Barojaren moldiztegian inprimatuta. Musika grabauak Ordozgoitiren Litografian egin zituen. Lehen aldiko bi liburuak *Cancionero Vasco* dute izenburutzat eta hirugarrenak *Cancionero Basco*. Hirugarren liburu honetan lehen “vasco” eta “vascongado” idazten zirenak orain “basco” eta “bascongado” bihurtzen dira. Ezin zuen besterik egin Manterolak Ortografiari buruz bertan dioenez ados etortzeko. Ortografia baturako ematen dituen arauetan dakar Manterolak Akademia baten faltaren arrenkura. Hara zer dioskun hirugarren liburu horren XIII. orrialdean:

La falta de una Academia que regulara la parte material de la escritura, la carencia de cátedras... ha sido la causa de la lamentable confusión que ha existido y existe todavía respecto a la ortografía euskara.

Hogeitalau urte lehenago salaketa berdina zeukan eginda Aizkibelek. Aizkibeldarrekin harreman estuak izan zituen Manterolak. Udal Bibliotekaren zuzendaritza hartu zuenean, Aizkibelen liburu guztiak bertara ekartzea lortu zuen Manterolak 1878.eko Martxoan. Biblioteka honetan ezagutu zuen

Manterolak Jose Maria Iparragirre bertsolaria, Ameriketatik etorri ondoren bertan azaltzen baitzen irakurle artean. Eta Iparragirreren bertso batzuekin iriki zuen Cancionero-ren lehen tomoa, *Nere maitiarentzat* testu eta doinuaz emanaz. Baina Santestebanen doinuarekin ematen digu bertso hau

Ume ederbatiku si'nuen
Donosti ako ka lean

eta ez Iparragirrek berak kantatzen zuen eta geroztik hain ezaguna egin den beste honekin:

Ume ederbatiku si'nuen
Donostiako ka le an

Iparragirrerenak beste hiru bertso ematen dizkigu Manterolak, bi doinurik gabe, *Gernikako Arbola* eta *Nere etorrera lur maitera*, eta hirugarrena doinuarekin, *Viva euskera!*, Aizkibel jaunari zuzendua. Bigarrenari dagokion doinua delata esan behar da Euskal Herri guztian oso ezaguna dela honako hau

Ara nun diran merdimai teak
ara nun di ran zelaiak

baina Azkuek dioskunez ("Euskalduna" 1896-9-20) Iparragirrek erabilten zuena beste hau izan zela

Ara nun diran merdimait eak
ara nun di ran zelaiak

Manterolaren Cancioneroan agertzen diren doinuak aipatzen gabiltzanez gero, eta nere txosten hau hain aspergarri izan ez dadin, beste pare bat bakarrik komentatu nahi nituzke. Lehena Aita Domingo Patrizio Meagher-ek (1703-1772) *Ardoari jarritako hitz neurtuak*. Hamazortzigarren mendearen erdi inguruan Meagher-ek jarritako bertsoa hala kantatzen zen orduan eta hala jarri zigun Manterolak:




Badauka doinu honek bere historitxoa gure ahozko literaturan. Julio de Urquijok dioskunez (EEA, 1913, 78 orr.) Bonaparteren paperen artean Xabier Maria Muniberen *El borracho burlado* operaren doinu zati bat aurkitu zuen, Txanton Garroteren "Canzoneta" hain zuzen




Ai niri zer egin ote zat



adrez i biltzen aztu zat




bu rua jasq_e zindet



lurra e dira_ezindet



triste dut biotza guztiz



e dan dezadane a berriz

Doinuak berdinak direla ezin uka eta gaia ere berdina dela esan behar. Baina norena da doinua, Meagher-ena ala Muniberena? Urquijok Muniberen alde jotzen du, baina nik esango nuke josulaguna dela honetan lehena. Peña-floridako Kondeak 1764an bere opera antzestu zuenean, 61 urte zituen Meagher-ek eta ordurako aspalditik Ardoari bertsoak jarriak zirela sinistu beharko genuke.

Baina urteak joan eta etorri, doinu hau aldatzen joan zen herriaren ahoan eta bertsolarien artean ere, eta hara nola geratu zen Xenpelarren bertsoetan

I a gu ri ak e gin du
 bade gu zeinek agin du
 ez oraindik umil du
 elkarregana bildu
 gerranaiduen gu zi a
 berari kendu hizi a

Azkererako utzi dut bertsoaritzan kantatzen den doinu berezi bat, *Esne saltzailearena*. Nondik datorkigu bertso neurri hau eta berari dagokion doinua? Manterolak, lehen Saileko IV. tomoan, eman zigun Agustin Paskual Iturriagak La Fontaineren *La laitière et le pot au lait* alegia itzuli zuena. Doi-nurik ez digu Manterolak ematen, baina denok ezagutzen dugun hau da, Iturriagaren lehen bertsoa erabiliez

Neska txa bat ziho -an
 Plazara neguan
 eskuan txintxila ta
 kaikua buruan.
 Gorputz liraina zuen
 gerria txit meha
 ilea erperaino
 urre kolorea.

1840an idatzi bazuen Iturriagak alegi honen itzulpena, badakigu noiztik datorkigun bertsolarien doinu berezi eta eder hau.

Beste doinu batzu ere ematen dizkigu Manterolak Cancioneroan:

– Serafin Barojaren *Ai hau dolorea* bertsoei Mariano Zuaznabar jaunak jarritako doinua.

– Salaberryren bildumatik hartutako *Txori erresinula*.

– Bilintxen *Zaldi baten bizitza* bertsoei Santestebanek jarritako doinua.

– Bilintxen *Kontxesirentzat* bertsoei Santesteban berak jarritako doinua.

– Salaberryren bildumatik hartutako *Txorinua kaiolan*.

– Elizanbururen *Maria* eta *Aingeru bati* dagozkien doinuak.

– Iztuetaren *Kontxesi* bertsoen doinua.

Iturriagaren lanak biltzen zebilenean, Hernaniko Kanposantua ikustera joan zen Manterola eta ez dut uste orduan pentsatuko zuenik, hain gazte zelarrik, laster beteko zela beregan Agustin Paskual Iturriagak han jarritako epitafioa:

Laster esango da zuengatik
esaten oi dana orain gugatik:
Ill ziran!

Eta Manterola hil zenean, musikarekin eman zioten agurra donostiarrek, hain zuzen, Felipe Gorritik hiletetarako musikatu zuen *Marcha Funebre* batekin. Orain duela ehun urte.

JOSE MANTEROLAREN OMENEZ

Donostia, 1984-IV-27

Josemari Vélez de Mendizabal

Jaunok:

Gaur urtebete, oso oker ez banago, Gasteizen egiten zuen Euskaltzaindiak bilera hango Diputazioan. Egun haundia neretzat, bertan Euskaltzain urgazlearen titulua eskuratu bait nuen. Egun hartan arabar baten omenaldia ospatzen genuen, Juan Bautista Gamiz-ena hain zuzen, eta Euskaltzaindiak euskara goratu nahian ihardundako gizon bat omendu —eskertu— nahi zuen.

Gaurkoan, berriz, Jose Manterolaren mendeurrena ospatu nahi dugu, eta honela beste aukera bat ematen diogu *herri gizon* bati, bere nolakotasunak zeintzu izan diren denok ezagutu dezagun.

Plazaratu egiten ditugu gure gizonak eta horixe da garrantzitsuena, ene ustez, era honetan bideak zeintzu izan diren eta jorrocketak nolakoak egin dituzten garbi gera baitaiteke. Nahiz eta, Juanitok esan bezala ehun urte edo gehiago emanda gero egin...

Eusko Jaurlaritzaren izenean mintzatzen ari natzaizuelarik, eskerrak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari. Berak dagien lana eta esfortzua eskergarria baita.

Legealdi berri baten aurrean aurkitzen gara. Datozen urteetan Euskaltzaindiak eta Eusko Jaurlaritzak eskutik joan beharko dute gure hizkuntzak dituen arazo eta zailtasunetik garaile irten ahal izateko.

Ez dugu ahaztu behar bi Erakunde hauen helburuetan euskararen bizitza aurkitzen denik. Euskaltzaindiak euskara aukeratu zuen eginkizun bere sorreratik. Eusko Jaurlaritzak orohar, Euskal Herria du xede. Eta denok dakigun bezalaxe, ez dago Euskal Herririk euskararik gabe. Eta honetan, gure aldetik behintzat, ez dago zalantzarik Euskararen garapenak kezkatzen gaitu, bertako enpresan ahalegin guztiak gutxi direlarik. Baina fedea (itxaropenak) zutik dirau, gure Herri honetan esperantza guztia baitugu ipinita.

Baina indarrak batu eta zuzendu beharrean aurkitzen gara. Alperrik saiatuko gara nork bere bidea aukeratzuz gero. Ezinbestekoa zaigu elkarrekin

ibiltzea eta, horretarako, gaur arteko urratsak estuagotu behar ditugula ustedut, indarrean haz daitezen.

Gure Herriak lehenago inoiz bizi ez izandako uneak ditugu gaurregunekoak; politik agintaritzaz —boterea— tinkatzen ari zaigu. Berezko egiturak zaizkigu nagusitzen ari, gureari berezko Herri baten mamia eskeintzen ari gatzazkiolarik. Eta, ez ahaztu, Euskadik euskara behar du Euskal Herria izateko.

Beraz, jarrai dezagun gurea den hizkuntza honi ahalik eta bitartekorik egokienak ematen.